



Andoainen “Euskararen astea” ekitaldiz beteta dator

Azaroaren 28an hasi eta abenduaren 4ra bitarte jarduera ugari burutuko da.

Andoaindarrak Izar lehiaketaren irabazleak ostiral honetan erabakiko dira Basteron. Euskararen egunaren harira antolatutako talentu lehiaketa da. Azaroaren 21ean finalaurrekoa egin zuten eta aurkeztutako 15 taldetatik, 10 sailkatu ziren egun handirako. Talentu ugari erakutsi zituzten eta denetarikoa parte hartzaileak aurkeztu ziren: funky dantzariak, piano, saxofoi edota klarinere-joleak, bertsolariak... Bakarka ere aritu ziren. Esate baterako, abeslari bat eta break dance estiloko dantzari bat aritu ziren jendaurrean.

Ostiral honetan duten onena emango dute Basteroko taula



Aurreko asteburuan “Andoaindarrak Izar” lehiaketaren lehen saioa antolatu zuten Gazte Lokalean.

gainen, arratsaldeko 17:00etan hasita. Jon Beloki bertsolari eta kantariak gidatuko du saioa eta hiru lagunez osatutako epaimahaia egongo da: Lorratzak taldeko Maddi bibolinjolea, Amaia Alkorta

dantzari ohia eta Alaiki musika taldeko Asier. Horiez gain, arratsaldea are gehiago alaitzeko, bakarrizketak eskainiko ditu Unai Ormaetxeak.

Lehiaketaren irabazleak Andoaingo dendetan kontsumitze-

“Andoaindarrak izar” lehiaketako finala ikusteko gonbidapena behar da; egun berean Basteron banatuko dituzte

ko erosketa txartela jasoko du. Gazte Lokalekoak oso pozik daude finalaurrekoak izan zuen arrakastarekin, eta oraingoan ere guztia ondo joatea espero dute. Basterora gerturatu nahi duenak gonbidapena beharko du; izan ere, tokia mugatua denez, parte hartzaile bakoitzari hiruna gonbidapen emango dizkiote. Horiez gain, gutxi batzuk sobera geratuko dira eta horiek egunean bertan Bastero atarian banatuko dituzte.

Lehiaketaz gain, gaurtik aurrera euskararen egunari lotutako ekintza gehiago egongo dira abenduaren 4a arte.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]

Andoaingo 400 urteak haurren ikuspegitik



La Salle Berrozpe ikastetxe-ko haurren eskutik, erakusketa eta gaztain jatea.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Santa Zezilia irudi bidez



Musikari askok bat egin zuen Santa Zezilia egunean, kalejiran irteteko.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Ziburuko ikastolaren egoera zaila

Urnietako eta Andoaingo jatorria dute Ziburuko ikastolako hainbat gurasok.

Aiurri Kaskarotenea ikastolan bertan izan da hango haurren egoeraren berri jasotzeko. Laida Mujika eta Haizpea Abrisketa izan ziren solaskideak.

Azal dezakezue, labur bada ere, ikastolak bizi duen auzia?

Kaskarotenea ikastola duela bi urte sortu genuen guraso talde batek, Seaskarekin batera. Euskarazko murgiltze eredua nahi genuen herrian bertan, eta hori ikastolak bakarrik eskaini zezakeen. Herriko Etxeari lur edo lokal bat galdegin genion ikastola bertan koka-

tzeko; hasieran oso bero ez bazegoen ere, azkenean eskola publikoko lur zati ttiki bat utzi zigun bi urterako, eskola prefabrikatuak ezartzeko bertan. Eskola obratan zen, eta bertako haurrak Zokoa auzoan ziren bitartean. Herriko Etxearekin hitzarmena 2014ko uztailan bukatu zen.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



Azaroaren 25a

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

EMAKUMEAREN ESTEREOTIPOAK

AZAROAK 25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNA



OSTIRALA, 28

11:00. Eskolako Zinema Foruma. Edertasun estereotipoak. Sarobe.
22:00. Zinema Komediala: “Hysteria” 3 €. Sarobe

LARUNBATA, 29

16:00. Beldur barik topaketa. Urola-Garaia: Zumarraga-Urretxu. Autobusak doan Gaztegunean azaroaren 24a baino lehen izena emanda.

IGANDEA, 30

20:00. Bakarrizketa. “La mujer sola” Dario Fo. Bea Insa. 3€. Sarobe

ABENDUAK 11, osteguna

18:00. Lehiaketa irabazi duten film laburren emanaldia. Gaztegunean



DURANGOKO EUSKALTZALEEN KULTUR EKIMENAK SUSTENGUA BEHAR DU

Katamalo musika taldearen CDa, Plateruena Kafe antzokiaren alde

Durangoko Azokaren edizio berria laster iritsiko da, eta dagoeneko bisitarientzat banaezinak dira Landako gunea eta Plateruena Kafe Antzokia. Ez dira gauza bera, ez, baina bat eta beste egun ho-

rietan euskal kulturagintzara erabat lotuta daude. Durangoko kafe antzokiak, ordea, arazo ekonomiko handia du sortu zeneko 250.000 euroko zorrari aurre egiteko zailtasunak dituelako.

Kasturte hasieran, diru ekarpen eta borondatezko lan kanpaina abiatu zutenean, azaldu zuten bezala, duela hamar urte eraikina berritzeko eskaturiko kredituaren 250.000 euroko zorrari aurre egin behar dio Plateruena datozen bost urteetan. Bazkide berrien sostenguekin, datozen bost urteetan urtero 50.000 euro eskuratzea da helburua. Plateruena zabaltzeko bere sasoian egindako inbertsioa da zor horren jatorria: "Hori kenduz gero, Plateruena kultura gunea eta ostalaritza proiektua ekonomikoki bideragarria da", azpimarratu zuten **Jone Miren Goenaga** Plateruena lehendakaria eta **Nerea Iriarte** zuzendaritza batzordeko kidea. Azpimarratu dutenez, bost urtean Plateruena diruz laguntzeko konpromisoa berrehun lagunek hartu dute, dagoeneko. Bazkide berri horiei eskerrak eman dizkiete gaurko agerraldian, lehendabizi, eta oraindik konpromisoa hartu ez dutenei luzatu diete gonbita: "Orain da ekarpena egiteko garaia", adierazi du Goenagak. Abenduaren 31ra arte dago ekarpen kanpaina parte hartzeko aukera.

ABENDUAREN 6AN JAI BEREZIA

Egun horretan Durangoko Azokara joateko asmoa duenak, kafe antzokian bertan Plateruena aldeko jaiak ikusteko aukera izango du. Oraindik egitarau zehatza aurrera-



Nerea Iriarte zuzendaritza batzordeko kidea eta Jone Miren Goenaga Plateruena lehendakaria, antzokiaren atarian.

tzerik ez duten arren, **Igor Elortza** bertsolaria edota **Peru Madalena** idazlea Euskal Herriko kulturagintzako hainbat lagunek parte hartuko duten ekitaldia prestatzen ari dira. Musikari, idazle, bertsolari, eta dantzariak, besteak beste, bat egingo dute ikuskizun horretan. Aurreratu dutenez, jardura askotako ikuskizuna izango da, "euskal kulturagintzaren bizimín eta bizipozei buruzkoa".

KATAMALOREN CD-A PLATERUENAREN ALDE

Katamalo musika taldeak arrasto luzea utzi zuen euskal musikazaleen artean. **Gorka Ur-**

Plateruena zabaltzeko bere sasoian egindako inbertsioa da zor horren jatorria, gainerakoan kulturagintza eta ostalaritza proiektua ekonomikoki bideragarria da

bizu musikariak eta **Gotzon Barandiaran** idazleak bideratuta, zaletu askoren ikusmina piztu zuten euren ibilbide osoan. Literatura eta musika arteko uztarketa ederra izan zen. 2011. urtean Katamalo taldeak Plateruena eskaini zuen orain arteko azken kontzertua. Gotzon Barandiaran taldekideak azal-

du duenez, "Plateruena diru ekarpen kanpaina abian jarri duela jakin genuenean erabaki genuen gure ekarpen xumea izan zitekeela kontzertu hartako grabazioaren eskubideak eurei eskaintzea, eta horren salmentatik ateratako dirua Plateruenera bideratzea, bide-lagun izan ditugunei laguntzeko". Barandiaranek azpimarratu du, duela hamar urte sortu zenetik, Durangoko kafe antzokia beti egon dela Katamalo eta antzeko proiektuekin inplikaturik: "Bertan beharrean dabilen jendearen lagun ere bagara".

Argitaratu berri duten diskoan, aurreko diskoetan jaso ba-

8 EURO



Datozen egunotan Katamaloren CDa Andoainen **Aiurri** eta **Urrats** en salgai dago 8 euroko prezioan. Ateratzen den diru guztia Plateruenera bideratuko da.

ko Katamaloren hainbat kantu daude: "Sonoritate berezia du te disko honetako hemezortzi kantek, eta beste dimentsio bat hartu zuten kontzertu hartan", azaldu du Gotzon Barandiaranek. Mila lagunek gora elkartu ziren 2011ko azaroko kontzertuan, eta, idazlearen berbetan, "itzela izan zen entzuleengandik jaso genuen berotasuna, eta han bizi izan genuena ez daukagu ahazteko; hasieratik gugaz kantatu zuen jendeak, eta hartu-eman itzela izan zen. Oso hunkituta egon ginen emanaldian". Berotasun hori nabari da diskoan ere.

Zortzi euroan eskuratu daiteke Katamaloren zuzeneko diskoa, Plateruenean, Aiurrik Andoainen duen bulegoan eta Urrats inprimategian. Euskarazko hainbat tokiko hedabideek kanpainarekin bat egin dute.

Katamalok Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

Plateruena alde **Katamalo**k egindako lana. 8€an eskuragai gurean.

SALGAI: URRATS, AIURRI



Zalorberritzen,
Durangon kultura bizitzeko.

...eta urte ASKOTARAKO!

Udal batzarraldia eten zuten adierazpena irakurtzeko

Azaroaren 25a Urnietan

Azaroako Udal batzarraldian aho batez onartu zuten adierazpen instituzionala jendaurrean irakurri zuten, sentsibiltate ezberdineko herrikideak alboan zituztela. Udal politika aktiboak martxan jartzeko konpromisoa hartzearekin batera, urnietarrei "konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko" gonbitea luzatu zieten. Emakumeengana-ko genero indarkeriaren aurka-ko egunean Buruntzantzan batu-kada taldeak deialdiarekin bat egin zuten, adierazpenaren aurretik eta ondoren kantu bana eskainiz. Ekitaldia burutu ahal izateko Udal ordezkariak batzarraldian etena egin zuten, eta azaroaren 25eko ekitaldia amaituta, plenoari berrekin zioten.

GAZTEAK PLENO ARETOAN

Udal batzarraldian aztergai ezberdinak eztabaidatu eta bozkatu ondoren, gazte talde batek galde erreguen tarteaz Gaztetxearen alde Udala zer egiten ari den galdetzeko aukera baliatu zuten.



Ordezkaritza duten hiru alderdiek aho batez onartu zuten Udal adierazpena. Herri-ko plazan irakurri zuten, hainbat herrikide alboan zituztela.



Udal batzarraldira gazte talde bat agertu zen, Gaztetxeari buruz galdera egiteko.

Hitzorduak euskararen egunaren harira

Abenduaren 3an euskararen nazioarteko egunaren harira, hainbat hitzordu iragartzen hasi dira. Presentacion de Maria ikastetxeko haurrek abenduaren 3an bertan ginkana egingo dute arratsaldeko 15:00etan hasita, San Juan eta Jakutegi plazetan.

Abenduaren 5ean, bestalde, Salesiar ikastetxean CAF enpresako euskara ardura-dunak hitzaldia eskainiko du. Hitzaldia HLPP, Erdi Maila eta Goi Mailako ikasleei zuzenduta dago. Lan praktikak egingo dituztenentzat interesgarria izango da.

Merkataritza tailerra

Merkatarien erronkei aurre egiteko tailerra antolatu du On Bizik. Astelehen eguerdian abiatu zen eta abenduan zehar beste hiru hiru

hitzordu gehiago izango dituzte abenduaren 1ean, 11n eta 18an. Errekalde kalean duen egoitzan egiten ari dira, 14:30etatik 16:00etara.

Antzezlan bikoitza igandean

Munduari itzulia Gorakada taldearen eskutik: "Fogg jaunak, izan ere, apustu ero bat proposatu zien Londoneko Reform Clubeko kideei: 80 egunetan munduari itzulia ematea, bere morroiaren laguntzaz". Zuzeneko musika, txotxongiloak eta beste zenbait jardueren uztarketa.

12:00, Sarobe. 3 euro.

La mujer sola bakarriketa eskainiko du Bea Insa antzezleak: "Protagonista Maria izango da, bere hezkuntzan, bere ezkondu bizitzan, kartzelatu-ta dagoen pertsonaia maitekorra eta gizatiarra". Komikotasunean eta ironian oinarritutako bakarriketa, erabateko gaurkotasuna duena.

20:00, Sarobe. 3 euro.

Gera zaitez Urnietan, denetik duzu bertan!

Bezeroaren astea abenduaren 15etik 20ra. ZATOZ! Opari asko ditugu zure zain



PELLO URRETABIZKAIA
MUAZPI HARATEGIA

Sortzaileetakoa zara, zergatik On Bizi?

Antolatuta egotea ezinbestekoa da, horrek aukera berriak eta hobeak eskaintzen dituelako.

Harategia duzu, zein da zure berezitasuna?

Kalitatea zerbitzuan eta produktuetan. Merkatalgune handietan ez dagoen hori eskaintzen dugu: zuzeneko harremana, gertutasuna.



LOURDES LIZASO
ITXASPE

Bat egiteak indartsuago egiten al zaituzte?

Bai, On Bizin egoteak indartsu egiten gaitu. Denak elkarrekin egonik, gauzak lortu ahal izateko.

Zuretzat zer da garrantzitsuena zurea bezalako dendetan?

Guk kalitatea eskaintzen dugu. Barazkiak eta frutak guk aukeratzen ditugu, egunero egiten dugu lan hori, nahiz eta beste produktu batzuk saldu ere.



LEONOR CARMONA
LEKAR ESTILISTA

Bezeroek zurekiko fidelotasuna erakusten dutela uste al duzu?

Bai. Leial jokatzan dute eta fidelak dira, oro har. 27 urtez ari naiz lanean, tokiz aldatu dut hainbat aldiz eta bezeroek beti jarraitu naute.

Zure bezeroen aldetik zer nabarmenduko zenuke?

Hasteko eta behin nirekiko erakusten duten konfiantza. Eta baita gertutasuna, eta tratu ona.



AMAIA MARTIN
AMAILUR TABERNA

On Bizik ze onura ematen dio merkataritari?

Herrian ikusten ditugun hutsuneak aztertu eta konponbidea ematen ahal-egintzeko elkartzen ari gara. Elkarrekin egitea hobea da.

Tabernan aldaketak egin dituzu

Hala da, bai. Goiko solairuan jangela handitu dugu talde handiei zerbitzua eman ahal izateko. Karta aldatu dugu, bide batez.



SANDRA GOMEZ
EDER DENDA

Zergatik uste duzu jendeak Urnietan erosi behar duela?

Merkatalgune ezberdinak daudelako eta eskaerei erantzuna ematen diogulako. Hala ere herria haztea nahi baduzu, herrian erosi behar dugu.

Denda ireki duzunetik aldaketak egin dituzu. Zein izan da azkena?

Bigarren solairuan arropa denda jarri dut. Modabloga betibeauty ireki dut, urnietarrek beste aukera bat izan dezaten.

MERKATARITZAREN
DINAMIZAZIORAKO
BULEGOAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA



KASKAROTENEA IKASTOLARI ARGINDARRA KENDU ETA ISUNA JARRI DIE UDAL ADMINISTRAZIOAK

Eskualdekoak dira Ziburuko ikastolako hainbat guraso

Aski ezaguna egin da Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren auzia. Andoainen eta Urnietan jatorria duten zenbait gurasok haurrak dauzkate bertan. Laida Mujikak urnietarrak ditu gurasoak; aitona,

berriz, Antonio Garmendia xettagile famatua izan zen. Bestalde, Pello Alvarez bi haurren aita andoaindarra da.

Diru laquntzak | Euskadiko Kutxa: ES37 3035 0059 88 0590731027



Laida Mujika bere bi haurrekin, lau urteko Maddi eta bi urteko Odei.



Pello Alvarez eta Haizpea Abrisketa, hiru urteko Oihan eta Laia bixkiekin.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Hitzarmena Herriko Etxearekin 2014ko uztailan bukatu zen; guk hainbat proposamen aurkeztu izan dizkiogu, baina auzapezak ez digu beste aterabiderik proposatzen. Gu gauden tokitik kanporatu besterik ez du nahi, eta horrela, bi aldiz auziperatu gaitu eta argindarra moztu. Gu ados gara hortik joateko, baldintzak ez baitira egokienak, baina ez gaude prest kale gorrian geratzeko!

Zein dira zuen proposamenak?

Eskola publikoko haurrak azaroaren 3a arte Zokoako auzoan egon dira, hango eskola huts bat eta prefabrikatuak okupatu dituzte. Gaur egun leku hori hutsa dago! Haurrentzat egokia da, ez da obrarik egiteko, baina Herriko Etxeak ez du nahi, beste proiektu batzuk ba omen dituelako: aisialdi zentroa, jubilatutako berrien aktibitateak... Guk erran diegu ordutegiak ez direla berdinak eta lekua denon artean partekatu dezakegula, baina ez dute deus jakin nahi.

Argindarra moztu ondoren, esku-argi eta kandlekin joan izan dira haurrak ikastolara... Nola bizi dute haurrek, nola gurasoek, egoera xeble hori?

Lehen egunean joan ziren esku-argiekin, sinbolikoki egoera

salatzeko eta orain ikasi dute zer den argindarra! Asteetan, argindar sorgailu batekin ibili gara. Hiru orduro gasolinaz bete behar genuen eta egundoko arrabotsa ateratzen zuen! Zenbait azpiegitura (ordengailua...) ere hondatu egin zaigu! Joan den astean, baina, argindarraren hornitzailearekin hitz egin, eta argindarra itzultzea lortu ahal izan dugu.

Xelebrea da egoera, bai, baina haurrek ez dute aldaketa handirik nabaritzen; gurasoak, aldiz, haserre gaude, oso haserre gure haurrak horrelako baldintzetan ezartzeagatik.

Ehun euroko isuna ari zarete ordaintzen egunero.

Urriaren 17an herriko etxeko notifikatzaile bat pasa zen hemendik, eta 4000 euroko isuneko jakinarazpena eman zigun, irailaren 7tik urriaren 17ra doan epeagatik. Ordaindu genuen, baina ikusirik isunarekin ez gintuela bidaltzen, auzapezak isuna 400 eurora igotzea galdegin zion epaileari!

Odolhuste ekonomikoa bada zuentzat...

Eskerrak Euskal Herri osotik laguntza jasotzen ari garen! Momentuz badugu isuna ordaintzeko... Mingarria zaigu auzapezari dirua eman behar izatea, nork eta guk, prefabrikatu batzuetan gaudelarik...

“Euskaraz bizi nahi badugu, hezkuntzan eta gizartean aldarrikatu behar ditugu gure eskubideak”

Zer egingo ote du diru horrekin auzapezak? Diru hori, diru zikina da orain...

Manifestazio jendetsua burutzen azaroaren 8an.

Gurasoentzat hunkigarria izan zen sei mila pertsona ikustea Ziburuko kaleetan. Horren ondoren, animikoki bajualdia bizitu izan dugu pixka bat, baina kanpainarekin jarraitzeko asmoa dugu. Ulertzen da gure kasua Nafarroa eta Iparraldean euskararen irakaskuntzak bizi duen egoeraren isladarik argiena dela, eta horrela, Euskal Herriatik segitzen dute elkartasun keinuek. Asteburu honetan, esate batera, Arrasaten elkartasun lasterketa antolatuta dute; Ibarran ere elkartasun kilometroa antolatuta dute; hainbat herrietatik mezuak, marrazkiak... bidaltzen dizkigute, diruaz gain.

Guy Poulou auzapezaren jarrera ikusita, auziari aterabiderik ikusten diozue?

Bai, izan, izan behar du! Bestela, borroka guzti honek ez du ezertarako balio! Uste dugu gaur egun garbi dugula zerba

lortzen badugu ez dela berari esker izango! Edo bere gainera den norbaitek beharko du aterabide bat eman, edo leku pribatu baterantz jo beharko dugu momentu baterako, hurrengo hauteskundeak arte berderen...

Legea argudiatzen du bere jarrera defendatzeko. Zuen ikuspegitik ikastolaren eta euskararen mespretxuzkoa dela diozue...

Auzapezari bost axola zaio euskara eta ikastola. Ez da kontra, baina ez da bere lehen tasunetan sartzen auzi hau, zeren eta ez diogu ezer ekartzen.

Nola dago euskara eta euskararen hezkuntza Ziburun eta inguruko herrietan?

7000 biztanle inguru ditu Ziburuk. Donibane Lohizune eta Urruña artean kokatua da, Lapurdiko kostaldean euskal hiztunak zenbat diren ez dakigu; ez da datu zehatzik, baina Lapurdiko kostaldean orokorrean gutxi gara. Ikastolatik kanpo euskara gutxi entzuten da, egia esanda.

Eskola publiko eta pribatu (kristau) askok eskaintzen dute eredu elebiduna, baina herrietatik ateratzen diren haurrak ez dira euskaldun ateratzen, non eta gurasoak ez diren euskaldunak, baina gutxi dira horrelakoak. Haur elebidunak sortzeko, murgiltze ere

dua da aterabidea, eta Iparraldean ikastolek bakarrik eskaintzen dute hori. Ikastoletan ere ez da erraza, haur eta guraso askok ez dakitelako euskara, eta ingurua oso frantsesa da. Beraz, ikastoletan ere indarra egin behar dugu haurrek euskaraz mintza daitezen.

Egun, euskara ez dela orain batzuk bezain politizatua ikusten, euskaldunak ez dira peioratiboki baserritartzat hartuak. Baina euskara ofiziala ez denez, jendea ongi bizi da frantses hutsean. Euskaraz bizi nahi badugu, hezkuntzan eta gizartean aldarrikatu behar ditugu gure eskubideak.

Nolakoa da Pariseko administrazio zentralaren zein gertuagoko erakundeek jarrera euskararekin?

Pariseko Administrazio zentralaren esku dago euskara ofizial bihurtzea, baina jai dago alde horretatik. Bestalde, azken urteetan, Herriko Etxe batzuetan badira euskara teknikariak, jarri dituzte martxan euskara plan xume-xumeak. Nolanahi ere, pertsonen borondatean oinarritzen den hizkuntza politika bat da. Eta ikastolek arazo berberarekin egin ohi dute topo: ez da legerik ikastolentzat, eta ondorioz, Herriko Etxeen arabera jaso ohi dituzte laguntzak. Guri auzapez hau tokatu zaigu, eta bere politika axolagabea pairatu behar!

Bideoa: Aiurri.com

SANTA ZEILIA EGUNA ANDOAINEN

Hainbeste musikarirekin zaindari ona izan behar

Herriko txistulariak eta abesbatza taldeak bilduta zeuden Zumea plazan, Gaztetxetik kalejira iritsi zenean. Orkresta elektro txaragako kideak bidea irekitzen ari ziren larunbat arratsaldean, eta

haien atzetik animoz gainezka zetozen dozenaka lagun. Babarrun jatea egin zuten gaztetxearen kanpoaldean, eta arratsaldea kalejiran eman zuten. Zumea plazako bilkura bitxia suertatu zen.

Txitibar jatetxearen albo-ko eskilaratan herriko abesbatza jarri zen, eta gertu zituzten herriko txistulariak. Orkestrakoak hurbildu zirenean erdi txantxetan erronka bota eta azkenean denen artean "Ikusi mendizaleak" kantu ezaguna abestu zuten. Txistulariek doinua ipinita, eta abesbatzak eta inguruan zeudenek ahotsa. Adin eta izaera guztietakoek bat egin zuten kantuan aritu ziren bitartean. Kantu hori amaitu eta berehala, Orkrestakoek La Polla Records taldearen "Txus" kantua abesteari ekin zioten.

Guztiak ere Santa Zezilia eguna bildu zituen. Edo behintzat santuaren harira antolatuta zeuden txistularien eta he-



Orkrestako kideak, Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzetako kideak eta Kantu Kale Jira taldeko kideak elkarrekin kantuan aritu ziren Zumea plazan.

Txitibar plazako bilkuran adin eta izaera guztietakoek bat egin zuten kantuan aritu ziren bitartean

erriko abesbatzaren arratsaldeko irteerak. Zumea plazako bilkuran musikari askok bat egin zuen, minutu batzutan bada ere.

Bilkura hori eta gero, talde bakoitzak bere bidea egin zuen. Andoainen asteburu osoan musika emanaldiak izan ziren. Larunbat eguerdian Gora Kaletxiki txaranga kalez kale aritu zen, eta igande eguerdian Udal musika eskolako Bandak urteroko emanaldia eskaini zuen Basteron.



Eguerdian Gora Kaletxiki txarangako kideak kalez kale giroa alaitzen aritu ziren. Bideoa: aiurri.com.



Udal Musika Eskolako Bandak urteroko emanaldia eskaini zuen Basteron, igande eguerdian.



Txistulariak kalejiran larunbat iluntzean.



Kantuan aritu ziren herritarrek.

AURTEN LAU AZTERLAN EUSKARAZ IDATZI DIRA, BAKARRA GAZTELANIAZ

Leyçaur aldizkariaren edizio berria

Bost lan berri argitaratu ditu Leyçaur 13 aldizkariak, Andoaingo historiazaleen gozagarri eta bere oroimen historikoaren aberasgarri. Andoaingo Burdinolak, afrantzesatuen fenomenoak, papergintza, XX mendeko emakumea eta lau artegile jorratzen dituzte ikerlanek. Lau euskaraz idatzi dira, bakarra gaztelaniaz. Ikerlarien artean, bi andoaindarrak dira: Victor Placencia eta Itziar Gutierrez.

Andoaingo Udalaren ize-nean hitza hartu zuen Ainara Rodríguez zinegotziak adierazi zuenez, "hamairugarren zori ekarri ohi duela dio mitoak, baina Leyçaur-en ibilbide eta emaria ikusita, ez dirudi begiz jota dagoenik". Leyçaur bezalako ekimenek bultzada berezia merezi dutela azpimarratu zuen, "izan ere gauzak aldatu nahi baditugu onerako, ezinbesteko baldintza da nortzuk garen, nondik gatozen eta zergaitik irauten dugun esplikatzeari. Eginahal horretan, kokatu behar da aldizkari hau".

Aurkezpena hurbildu ziren ikerlariak denek euren mintzaldiei hasiera emateko, Andoaingo Udalari eskerrak eman zizkieten hainbeste urtetan aldizkaria babestu izanagatik, "alderdi bat egon nahiz bestea egon boterean". Ziurtatu zuten, salbuespena da ia ikerkuntza historikoen alorrean. Historialariek, Udal artxibategiko bi langileen gana -Karmele Otaegi eta Marta Trutxuelo- luzatu zuten esker-tzaren atala, esan zuten ezinbestekoa delako ikerkuntzaileei eman ohi dieten laguntza.

AINTZINAKO BURDINGINTZA

"Aintzinako burdingintza Andoaingo eta Leitzaranen: bertako haizeolei buruz lehen datu eta ikerketak" izenburua daraman ikerketa egin dute Xabier Alberdik eta Iosu Etxezarragak. Alberdik eman zituen lanari buruzko azalpenak: "hiru urte daramagu Gipuzkoan burdingintzari buruzko miaketa arkeologikoak egiten, eta jada 150 haizeolen aztarnak topatu ditugu, horietatik zenbait Andoaingoan".

Aurkitutakoak aintzinako burdingintzari buruz berrirakurketa berri bat egitera behartu diela aitortu zuen Alberdik: "Erdi aroko dokumentazioa aztertuz gero, uste genuen burdinolak aipatzen zirenean, errekeen urek mugitutakoak zirela. Baina toponimiari jarraiki, lekura joan garenetan ohartu gara, batzuk erreketatik urrun zeudela, eta beraz, haizeolak izan zitezkeela". Gauzak horrela, eskuartearen darabilten hipotesia da aipatzen diren burdinolak batzuk haizeolak izan



Atzean, Ainara Rodríguez zinegotzia, Carlos Rilova eta Xabier Alberdi. Aurrean, Victor Placencia, Itziar Gutierrez eta Iñigo Imaz.

zitezkeela, eta XIV. mendean oraindik martxan ariko zirela; era horretan, teknologia zaharra (haizeolak) eta teknologia modernoak (burdinola hidraulikoak) bat egingo zuten, epe jakin batean.

AFRANTZESATUEN FENOMENOAK

Carlos Rilova eta Koro Tapiak "Afrantzesatua? Errepresaliatua? saritua? Andoaingo Napoleonen okupazioaren menpe (1808-1815)" azterlanaren burutu dute. 1808-1814ko Espainiako inbasio napoleonikoaren baitan afrantzesatuen fenomenoak sortu ziren, hots, frantsesekin bat egin zuten herritarrena. Hots, okupatzaileekin modu batera edo bestera kolaboratu zuten herritarrenak. Bada, okupazioa amaitu ostean afrantzesatu horiek Andoaingoan ustez pairatu zituzten errepresaliak aztertu dituzte bi historialariek. Rilovak aitortu zuenez, afrantzesatuen fenomenoaren inguruko agiri interesgarriak topatu dituzte Andoaingo udal artxibategian. Ondorioz garrantzitsuenak, ezustekoa eragin diena historialariei, zera izan da: afrantzesatuek apenas jasan zutela errepresiorik; gehiago galdu zutela Napoleonen tropen aurka mobilizatu ziren boluntarioek.

Rilovak, historiaren zati hori aztertzerako orduan, erabili ohi diren hainbat mito, interpretazio eta usteak gogoan hartu behar direla azpimarratu zuen bere mintzaldian. Horrela, Napo-

leon edo Fernando VII bezalako pertsonaje historikoak nork epaitu, halako kalifikazioak irtingo direla: filantropoak ala munstroak, gaiztoak ala zintzoak, atzerapenaren ala progresoren bultzatzaileak... Rilovaren irudipenerako, historian ez daude onegileak eta gaizkileak; soilik denboran barrena gartzen doazen pertsonak.

PAPERGINTZA

Andoaingo papergintzak eduki duen garrantzia (ezarpena, garapena, gainbehera eta desagertzea) aztertu du Victor Placencia. "Andoaingo: un enclave papelerero en el Bajo Oria (1895-2008)" izenburuko azterketan. Oria zein Leitzaran ibaien bazterretan 1895etik aurrera eraiki ziren lantegiak hartu dira aztergai. Luzea baita zerrenda, B. Lasquibar y Compañía, S en C (1895) lantegitik hasi, eta Galgo paper, S.A. (2007) bitarte.

Hiru motibo aipatu zituen pizgarri egin zaizkonak ikerketan murgiltzeko. "2007an Galgo paper lantegia itxi zenean, ohartu nintzen paperaren sektorearen historia ez zegoela jasota behar bezala Andoaingoan, beste zenbait sektore bezainbat (Laborde, Sapa...). Bere haurtzaroarekin zerikusia daukan bigarren arrazoi sentimentalago bat ere aipatu zuen: "Olagain auzoan jaio nintzen, eta bertan hazi; Celulosas de Andoaingo eta Papelería del Leizaran lantegiak begi bistan eduki ni-

Saridunek Udalaren deialdia eskertu zuten, ikerkuntza historikoen alorrean salbuespena dela adieraziz

tuen urtetan; azken horren tximini luzea eta arratsaldeko sei-retako tutua betirako geratu ohi diren haurtzaroko elementuak egin zaizkit".

Paperaren materialarekin berearekin dauka zerikusia hirugarren arrazoiak: "badirudi mundu digitala papera ordezkatzera datorkigula, baina ez dugu ahaztu behar gure belaunaldiaren eta aurrekoen ere, jakintza, informazioa, heziketa... paperaren bidez eskuratu dutela".

Placencia bere mintzaldian zehar, andoaindar izateaz harro zegoela aitortu zuen. "Kapitalismoaren hasieran, ia herri guztiek ehungintza eta papergintza ezagutu dituzte batez ere. Andoaingoan, Subijana ehungintza lantegiaren historia nahiko ondo jaso da eta gainera langile emakumei ere egin zaie gorazarre publikoa. Papergintzaren historia ere ari gara berreskuratzen".

Tolosaren kasua aipatu zuen azkenik, berreskurapen historikoan zer egin behar ez den zehazteko: "Tolosa papergintzaren ikur izan da, baina egun, bizkar ematen dio. Han inork ez du ezer jakin nahi, nahiz eta herri nortasuna osatzen lagundu duen industria sektorea izan".

ANDOAINO EMAKUMEAK

Iñigo Imazek "Andoaingo emakumeen lana, ogibideak eta protagonismo soziala (1900-1975)" lana aurkeztu zuen. Andoaingo udaletxeko pleno aretoa jarri zuen eredu bezala, hasieratik: "Zintzilika dauden pertsonai publikoak, denak dira gizonezkoak, bi emakume izan ezik: Anbrosia Olabide eta Ama Kandida. Biak mojak. Datu horrek islada dezake XX. mendeko zati handi batean emakumeak Andoaingoan eduki duen papera, edo eman nahi izan zaion papera: etxekoandrea edo moja".

Ikerketaren lehenengo atalean, mende hasierako industria-

lazio prozesuan, emakumeak edukitako papera, ogibideak, partehartzea eta protagonismo soziala aztertu du Imazek. Ondoren heldu zen Errepublikara (1931-1936) azpimarratu du batik bat. "Hor ikusten da emakumeak herrian hartu zuen protagonismo soziala, izan ere ordurarte mugatzen baitzen emakumearen berezkoa garaietara: esaterako, gaixotasun aldi-dietan edo Morokoko gerran bezala, dirua biltzera. Errepublikak bultzatzen du emakumeak antolatuta daitezen; euskalgintzan nabarmen agertzen da emakumea, eta sindikatuek ere jada emakumea langile bezala ikusten dute, ez gauza arraro gisa".

Frankismoak atzerapena ekarri zuela gogoratu zuen segidan: "berrito emakumearen figura tradizionala nagusitzen da". Imazek aitortu zuen orain arte artxibategiak bultzatutako lanetan agertu ez diren emakumeen izenak berreskuratu nahi izan dituela. Gerra garaiko emakumeen kasuan salbuespena egingo zuela ere esan zuen: "Gerra garaian emakume asko nabarmendu ziren, errepresioa jasan zutelako edo bultzatu zutelako. Azken horien izenak ez ditugu plazaratu, euren ondorengoek ez dutelako zertan pairatu behar euren aurrekoek egindakoa".

LAU ARTISTA ANDOAINDARRAK

Itziar Gutierrez gazte andoaindarrak, azkenik, "Artea Andoaingoan: artista garaikideen obra eta bizitza" azterketa hartu zuen ahotan. Gotzon Etcheberria, Iñaki Olazabal, Pello Irazu eta Jose Ramon Amondarain herriko lau artegile sonatuen ibilbide artistikoak aztertu ditu Gutierrezek. Horretarako, besteak beste, lau artistekin elkarriketak burutu ditu.

Modernismoaren garaitik ekintza artistikoak Andoaingoan izan duen garapenaz jabetzeko laukotearen ibilbidea ikusi behar da derrihor, Gutierrezen ustez. Lauek ere belaunaldi ezberdinei erantzuten dien ikusmoldea azaleratzen duten arren, gaur egun, bikain asko laguntzen dute Euskal Herriko panorama artistiko garaikidea definitzen.

AZAROAK 28-ABENDUAK 4

Euskararen astea Andoainen, asteburu honetan hasita

Euskara kalera ateratzeko asmoz, euskararen eguna ospatuko da Andoainen azaroaren 28tik abenduaren 4ra bitarte. Hizkuntzarekin lotutako hamaika hitzordu izango dira aste osoan zehar.

Aiurri astekaria Udaleko Euskara Zerbitzuko Arantza Aguado euskara teknikariarekin bildu da, astearen inguruko xehetasun gehiago jakin asmoz.



andoainDARRA
euskaraz

Euskara ardatz duen kultur aste modukoa izango al da datozen egunetarako prestatu duzue?
Arantza Aguado. Bai, denetariko eta adin guztiei begirako ekin-tzak antolatzen saiatu gara. Ekainean deialdi orokor bat egin genuen herri mailan eta eremu ezberdinetako jendea batu ginen antolaketarako; ikastetxeetatik, gazte lokaletik, kirol eremutik, herritarrek... Horiekin euskararen egunetarako programatxo bat antolatzen hasi ginen. Programazioa zabaltzen joan da eta, azkenean, aste osoan zehar egingo dira ekin-tzak.

Lehen aldia da horrelako zerbait antolatzen duzuela. Zer moduz joan da antolaketa?

A.A. Azkenengo urteetan ez da ezer egin euskararen eguna ospatzeko. Nahiko ekitaldi instituzionala egiten zen, alkatearen adierazpena irakurritz, soilik. Ez zen ezer berezirik egiten; horregatik, aurtengo gure asmoa herritarren eskutik abiatuta programaketa txukun bat egitea izan da. Oso pozik gaude; jendeak borondate handia izan du, asko konprometitu da eta laguntzeko prest agertu da. Guretzat sorpresa izan da, lehenengo urtea izanda, horrenbesteko parte hartzea izatea. Beraz, pozik eta eskerrak eman beharrean gaude.

Egitarau potoloa atera duzue.

A.A. Ostiralean hasiko gara Andoaindarrak Izar lehiaketarekin. Honekin 12-18 urte bitarteko gazteak elkartu nahi ditugu, eta egia esan, oraingoz izugarritzko arrakasta izan du.



Arantza Aguado ESCIViko produktzioako bi ikaslek lagundu dute desfilea antolatzen: Cristina Pascual eta Jorge Garcia.

Modelo desfilea ere arrakastatsua izango dela ikusi dugu, kalean bolo-bolo dabilen gaia delako. Bestalde, euskararen egunean bertan egingo den laburmetrai emanaldia oso interesgarria izango da. Koldo Almandoz eta Asier Altuna bertan izango dira eta laburmetraiak ikusteaz gain, euskararen egoera zineman zein den hausnartzea da helburua. Azkenik, kantu afari internazionala azpimarratuko nuke. Banaiz Bagarak Kotoi elkarteari batera antolatu du eta bertan plater ezberdinak dastatzeko aukera egongo da.

Ekintzarik berritzailenetakoa desfilearena da. Nolatan sortu da ideia hori?

A.A. 90eko hamarkadan bizpahiru moda desfile egin ziren Andoainen, ikastolak eta merkatarien elkarteak antolatuta. Urte batzuetan zehar jarraian egin bazen ere, gerora ez zen gehiago egin. Lan taldean ohitura hori berreskuratzeko ideia sortu zen, gazteak erakartzeko aproposa zela pentsatuta. Merkatariekin ere zerbait egiteko aukera ematen digu, eta horrela, merkatariek eta modeloak jarriko ditugu elkarlanean. Gainera, modari beste ikuspe-

gi bat eman nahi diogu. Izan ere, moda erdal munduarekin lotzen da sarritan; baina guk euskara eramango dugu desfile-lara.

Zein izango dira modelo lanetan arituko direnak?

A.A. La Salle-Berrozpe, Ondarreta eta Ikastolako ikasleak izango dira modeloak; batxilergoko ikasleak, gehienak. Horiez gain, 90eko hamarkadan batxilergoko ikasleak zirenak ere aterako dira taula gainera. Garai batean izandako ohitura berreskuratzeko dugu-nez, orduan parte hartutako batzuk ateratzea ideia polita iruditu zitzaigun. Izugarritzko ilusioarekin daude, gainera. Guztira, 40 lagun inguruk hartuko dute parte.

Andoaingo kaleetan gaztelania entzuten da. Zure ustez, horrelako aste bat beharrezkoa al da euskarari bultzada emateko?

A.A. Galdera horixe bera egin genion geure buruari antolatzen hasi ginenean: merezi du euskararen eguna antolatzea? Agian, hobe litzateke urtean zehar ekin-tzak egitea, guztiak abendu hasieran egin ordez. Lantaldean baloratu genuen eta gure ustez, euskarak prota-

gonismo egun bat behar du. Horrek ez du esan nahi, noski, urtean zehar ekin-tza gehiago egin behar ez denik.

Beti esaten da euskarak 365 egun izan behar dituela.

A.A. Bai, baina lantaldean oso garbi ikusi genuen euskararen eguna ospatu behar zela eta euskara eszenatoki gainera eraman behar zela. Andoainen kale erabilera jaitxi egin da azkenengo urteetan, eta beharrezkoa da horrelako zerbait bultzada emateko. Beti egongo da zalantza zenbaterainoko eragina izango duen euskararen erabilera, baina euskarari su artifizial moduko bat eman nahi diogu, nahiz eta ez ikusi argi zenbateraino eragin dezakeen.

Zein mezu helarazi nahiko zenieke Aiurriko irakurleei?

A.A. Anima daitezela eta parte har dezatela. Jendearengan kontzientzia sortu nahi dugu, euskara al bait gehien erabil dezaten. Gainera, erdaldunak ere erakarri nahiko genituzke ekin-tza hauetara. Nahiz eta euskara ez jakin, askok badute ulertzeko gaitasuna eta horiek ere gerturatzea gustatuko litzazuke. Bide horiek erraztu nahi dizkiegu. Ea lortzen dugun.

“Moda desfílean La Salle-Berrozpe, Ondarreta eta Ikastolako ikasleak izango dira modeloak; batxilergoko ikasleak, gehienak”

EGITARAUA

Azaroak 28, ostirala

17:00 “Andoaindarrak IZAR” finala Basteron.

Azaroak 29, larunbata

12:00 Ikastolak antolatutako kalejira Juanita Alkain plazatik Zumeara.

17:00 “Hurak eta lapurrak” filma Basteron.

18:30 Kantu-kalejira Goikoplazatik Kotoi elkartera.

21:00 Kantu-afari internazionala Kotoi elkartean.



Azaroak 30, igandea

12:00 Euskara Pasarelan, Basteron.

17:00 “Hurak eta lapurrak” filma Basteron.

Abenduak 3, asteazkena

Goizean zehar Andoaingo ikastetxeetan hainbat jarduera burutuko dituzte.

11:30 Adierazpen instituzionala eta Udaleko langileek osatutako mosaikoa udaletxe aurrean.

19:30 Film laburrak euskaraz, Basteron. Koldo Almandoz eta Asier Altunarekin solasaldia.

Abenduak 4, osteguna

Iluntzean euskararen Pintxopotea herriguneko hainbat tabernen laguntzarekin.

“Leitzaran hor dugun altxorra” hitzaldia



Lokomotora 31 taldeko zenbait kide: Andoni Etxezarreta, Amaia Amutxastegi, Xabier Arruti eta Bittor Uria.

Plazaolako trenbidea ireki zenetik ehun urte (1914-2014) igaro diren honetan, Burdina taldeak egoki ikusi du hitzaldia antolatzea haren iraganaz, orainaz eta geroaz mintzatzeko. Mahaia Plazaolaren gainean asko esateko daukaten pertsonak osatuko dute. Batetik, Trentxiki 31 talde historikoko hiru kidek hartuko dute hitza: hots, Andoni Etxezarreta, Bittor Uria eta Iñaki Otamendik. Talde hori

eskaera jakin baten inguruan sortu zen orain urte batzuk: Plazaolako trenbidean urtean jardun ondoren Leonen bazterrean utzita zegoen lokomotora 31 Euskal Herrira ekartzea. Plazaolako trenbidearen balioak bikain plazaratzen jakin zuen bere garaian, eta gerora eratuko zen Burdina taldearen hazia ere bihurtu zen.

12:00. Bastero.
Azaroak 29, larunbata.

Andoaingo herriaren 400 urteak, haurren ikuspegitik



Gaztain jateari ekin zioten arratsaldeko seietan.

Andoain herriaren laugarren mendeurrenak zeresan handia emango du 2015. urtean. Prestaketa lan ugari daude aste hauetan. Aurreko larun-

batean La Salle Berrozpeko ikasleen gai honi buruzko lanak ikusgai izan ziren Zumea plazan. Bertsolariez gain, gaztain jatea antolatu zuten.



Ikasleen lanak ikustera hainbat herritar hurbildu zen.

Emakunderen ekimenez, herriko eragileen lana ere ikusgai

Berdintasunaren busa, ostiralean Zumea plazan

Emakunderen Berdintasunerako gune ibiltaria Goikoplazara iritsi zen azaroaren 21ean, eta ostiral honetan bisitaldia errepikatuko da, baina kasu honetan Zumea plazan. Emakunde duela hamaika urte hasi zen berdintasunaren alde egiten ziren esperientziak ezagutarazten. Arrakasta handia izan du, eta aurtengoa ere bus egokitu bat dabil EAEn zehar berdintasuna aldarrikatuz. Informazio panelak eta multimedia aparailuak daude bertan. Aurtengoan, erakusketaren alde batean datu orokorrak ikus daitezke, eta beste alde batean, Andoaingo dagokiona.

Erakusketaren irekieran Udalak ekitaldia antolatu zuen, hainbat herritarrek parte hartu zutelarik. Miren Agirreurreta zinegotziaren iritziz, “erakusketaren helburua berdintasunaren alde herrian egin diren zenbait ekimen jasotzea izan da. Baita artean, lanbide ezberdinetan edo jaietan emakumeok aldarrikatu nahi dugun tokia ikustaraztea ere. Horrez gain, urteotan ekimen hauen inguruan bi ezaugarri nabarmendu behar dira: batetik, emakume askok parte hartu duela, eta bestetik, antolaketan talde lanean aritzea eredugarria izan dela. Gure herrian modu horretan lan eginez gauza asko sortu eta lortu daitezke”.

Jarraian eragile ezberdinek hartu zuten hitza. **Emeki emeki** taldekoentzat *Martxoak 8 emakume* kalejira egiteko talde txiki bat sortu zen, urtetik urtera handituz joan dena.



Zumea plazan ikusgai izango da Emakunderen Berdintasunerako gune ibiltaria. Orduetgia: 10:00-14:00 / 16:00-20:00.

Erakusketan Andoaingo esperientzia ezberdinen bideoak eta argazkiak ikusgai daude

Helburua esparru ezberdinetan aritzen diren emakumeak itzaletik ateratzea da. Emakume asko dago isilpean lanean, eta errekonozimendu bat mezezi dute”.

Janire Huitzik Batukada feministaren esperientzia azaldu zuen bere ikuspegitik, “txikitatik batukadak erakartzen ninduen eta uda aurretik ikusi nuen Andoaingo bazegoela aukera hori, emakumen eta berdintasunaren alde egiteko, gainera”.

Sara eta Irati pala jokalarien belaunaldikoak dira, “palan hobetzen ari gara, bi talde sortu ditugu eta astearte eta larunbatetan entrenatzen ari gara. Geroz eta gehiago ari gara parte

hartzten. Poza ematen du”.

Horiez guztiez gain, aurtent antolatu zuten “20 emakume, 20 artelan, 20 ideia” erakusketak kolektiboko ordezkari bategi hitza hartu zuen. Baita **1964ko emakumezkoen danborra**dan parte hartu zuen kide bategi ere.

2012ko martxoaren 9an 50 emakume osatutako taldeak emanaldi gogoangarria eskaini zuen. Hura gogora ekarri zuten **Amaia Oreja** eta **Maialen Santa Krutz** kantariak: “Musika emanaldi baterako deitu gintuzten, martxoaren 8a zela eta. Berrogeita hamar emakume bildu ginen musika jotzeko eta abesteko. Hori guztia bideratzeko bost emakumez osaturiko lantaldeak izugarritzko lana eginez. Politza izan zen. Gainera, inoiz elkarrekin lan egin gabeko jendea bildu ginen eta oso polita izan zen”.

Bideoa: aiurri.com



Agerraldian parte hartu zuten eragileek.

2015eko udaberriko Udal hauteskundeei begira

Maidar Lainez PSE-EEko alkategaia izango da

Datorren urteko udaberrian Udal hauteskundeak deituko dituzte eta Andoaingo PSE-EEK aukeratu du bere idazkari orokorra alkatetzarako. Lau urte egin ditu zinegotzi lanean Maidar Lainez Lazkozek, eta orain alkatetza du helburu: “38 urteko ama, ingeniaria. Nire ibilbide profesional osoa enpresa pribatuan egin dut. Azken lau urtetan, nire lana eta zinegotzi lana aldi berean egin ditut. Eta gaur, zuen aurrean, 2015eko Udal hauteskundeetarako Andoaingo alderdi sozialistaren hautagai bezala aurkezten naiz”. Hitz horiekin eman zion hasiera bere hautagaitzaren aurkezpenari. Parean zituen kazetariak eta baita hainbat alderdikide ere, tartean, gaur egun zinegotzi lanean ari diren **Toñy Landa, Petri Romero** edota **Jose Luis Vela**.

Aurkezpen ekitaldian alboan izan zuen **Denis Itxaso** Gipuzkoako Foru hauteskundeetarako hautagaia. Hitz ederrak eskaini zizkion Lainezi, eta harengan konfiantza osoa zuela gaineratu ere: “Andoain herriari gerta dakioken gauzarik onena Maidar alkate izatea da”.

HAUTAGAIEN AUKERAKETA

Andoaingo Udal hauteskundeetarako hautagaia aukeratzeko prozesua irekia izan da. Afiliatu guztiei aurkezteko aukera eman zieten, alabak aurkezteko beharrik izan gabe. Lainezek agerraldian adierazi zenez, bi hautagai aurkeztu ziren eta afiliatuak bozketa bidez Lainez bera aukeratu zuten. Pozik eta ilusioz beterik nabari zen asteazken eguerdian egin zuen agerraldian. Egun alkateztan dagoen EH Bilduri aurre



Maidar Lainez eta Denis Itxaso Andoaingo sozialisten etxean, asteazkenean.

“Andoaingo etorkizunak bi aukera ditu: Alkatea sozialista edo Bildukoa izango da”

egiteko alternatiba erreal bakarra dela dio, “pertsona interesatzen zait eta uste dut ideiak, gogoak, ilusioa, kementa, lana eta beste ikuspegi bat eskain ditzakedala. Udala barrutik ezagutu eta gero, jakin badakit gauzak beste era batean egin daitezkeela”. Gobernua izan direnean nolakoak diren erakutsi dutela adierazi zuen. Eta jarraian gogoan izan zituen **Josean Perez Gabarain** eta **Estanis Amutxastegiren** agintaldiak eta “haien inplikazioa Andoain herria garatzeko eta aurrera egiteko”.

Alkatetzarako hautagai nagusien artean baztertu egin zuen EAJ-PNV alderdia, egungo egoeraren erantzule seinaltuz: “Ez dadila inor ausartu Bilduren alternatiba EAJ-PNV alderdia dela esatera. Ez deza-

la inork ahaztu, Andoain herriak pairatzen duen paralisi egoera horren erantzulerik baldin badago hori EAJ-PNV dela, ezagutzen dugun ezgobernu hau baimendu duelako”.

“EDO PSE-EE, EDO BILDU”

Andoaindarrak bi aukerata mugatu nahi ditu sozialisten hautagai berriak, “ozen eta argi diot, Andoaingo etorkizunak bi aukera ditu: Alkatea sozialista edo Bildukoa izango da. Eta ondotxo dakigu denok Bilduren kudeaketak nora garatzen”.

Herriko kaleen garbiketa, argiteria, aparkalekuak..., hainbat gabezia zerrendatu zituen. Zabor bilketari dagokionez, bosgarren edukiontzia alderdi defentsa sutsua egin zuen.

Azken hitzekin bertaratu zirenen txaloak jaso zituen: “Zuzentzen dudan alderdia eraberrituta dago, bizirik dago eta alternatiba erreala da. Nire ki-deekin batera Udal hauteskundeak irabaziko ditugu. Beraz, aurrera!”.

Azaroaren 25aren harira, Udal adierazpena

Postontzia

Azaroaren 25a ‘Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna’ da. Hori dela eta, Andoaingo Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen emaitza dira.

Eraso eta portaera sexistak ez dira indibiduo batzuen jarrerara isolatuak, ez bada mundu osoan indarrean dagoen sistema baten parte. Sistema horren bitartez, emakumeen indarkeria ahalbidetzen da, haurtzarotik hasi eta euren bizitza osoan zehar. Hainbat neurritako jardura oldarkor eta matxistak dira, eta denek egiten diete eraso –zuzenean edo zeharka– emakumeen osotasunari, askatasunari eta gaitasunari. Zoritxarrez, oraindik ere, emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaera ugari antzematen dira gizartean; esate baterako, erasoak jasan dituzten neskek eta emakumeek jarritako salaketan egiazkotasuna zalantzan jartzea, botere-espazioetatik indarkeria hutsaldutatu eta justifikatu nahian eta gaiari garrantzia kendu nahian egiten diren adierazpen publikoak, edo komunikabide batzuek indarkeriari ematen dioten tratamendu azaleko eta sentsazionalista, besteak beste.

Erakunde publikoek gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota oro errotik suntsitzeko ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da programa egonkor eta jarraituak garatzea, indarkeriarik gabeko gizartea lortu ahal izateko. Era berean, programa horiek baliabide ekonomiko eta pertsonalez hornitu behar dira.

Indarkeria mota guztiak desagerrarazteko gure konpromiso aktiboan, gure herriko neska eta mutil gazteen indarkeria sexista prebenitzeko lanaren aldeko apustu irmoa egiten dugu; izan ere, herri honetan indarkeria matxistak duen eragina arduratzen gaituen errealitatea da. Hori dela eta, aurrean ere, jende gaztearekin lan egiten jarraitzen dugu, Beldur Barik eta Harremonak programen markoan.

Erakunde publikoek arlo horretan garatu eta sendotu behar ditugu berdintasun politika publikoak, Berdintasun Sailaren gidaritzapean, eta Hezkuntza eta Gazteria Sailarekin, eta herriko emakumeen elkarlanarekin, beti ere politika estrategikoekin indarrak batzeko ahaleginean. Hori guztia, helburu nagusi batekin: esparru guztietatik, emakumeen jabe-kuntza ahalbidetuko duten eta desberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko duten gaitasuna sustatuko duten politikak garatzea. Politika horiek, era berean, lana eta gogoeta sustatu behar dute mutilekin, euren protagonismoari eta indarkeria matxistan duten erantzukizunari buruz, erasoak zer den eta zer ez identifikatzeko dituzten zailtasunei buruz, erasoetan daukaten parte-hartze aktiboari buruz edo eraso baten aurrean ikusle pasibo gisa hartzen duten paperari buruz.

Estrategia hauetan egingo den lanari esker, indarkeria onartzen duten, indarkeria justifikatzen duten edo erasoak eta emakumeenganako jarrera diskriminatzaileak hutsaltzen dituzten diskurtsoak onartuko ez dituen eta naturalizat hartuko ez dituen gizartea eratzen joango da.

Hori guztia dela eta, **1** Andoaingo Udalak konpromisoa hartzen du: –Beldur Barik eta Harremonak programen edukia garatzeko, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa. –Bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatuko. –Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean salaketarako eragile aktibo izateko. **2** Andoaingo Udalak herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexistata/matxista gaitzesteko ere.

PARTE HARTZE HANDIA GAZTETXKO BABARRUN JATEAN

14:00ak pasatxo zirela eman zioten hasiera aurreko larunbatean babarrun jateari. Gaztetxearen urteurreneko ekitaldi asko egin dira, eta larunbatekoa egun pasa bilakatu zen. Izan ere, arratsaldeko 18:00ak aldera, bazkarian bildutakoak kalejiran hurbildu ziren Zumea plazaraino. Bidea irekitzen joan ziren Orkestra elektro-txaranga kideak. Bizkaitar taldea dagoeneko ohiko bilakatu da Andoaingo ospakizun nagusietan. Asteburu honetan kontzertu sortarekin emango diote amaiera urteurreneko ekitaldiei.





IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Istripu bat mendian

Xalbadorrek, bere bizitzan istripu asko izana dela aitortu ondoren handiena azaldu nahi digula esan digu. Mendien egurretan dabilela bakar-bakarrik adar handi bat erortzen zaio bere gainera eta deiadarka hasten da, baina mendiak ito zituen deiadar haiek. Hil zorian ikusten du bere burua. Jainkoa han zegoen noiz deituko zion zain. Baina Xalbador etxekoez oroitzen da, ordea, hara nola dion:

“Etxekoz nintzen gehienik oroit oinaze haien erdian, odolarekin nigarra nahas naukalarik begian, Jainkoaz bertze izaite asko zebilzkitan itzulian, Hau etzen azkeneraino sartu ene gogoko argian.”* (*Jainkoa)

Bere esperientzia bere us-tez hau izan da: une estu hura etorri arte Jainkoaz ez dela gogoratu, munduko gauzetaz oroitu zela bakarrik eta azterketa bat egiten du.

Munduan bada bertso hau ere, ikaragarria da:

“Jainko maitea, hau baldin bazen nitan zen fede guzia, lur hontaz laster asper nadien egin zaidazu grazia;

Bere etxekoez, herriaz interesatuta hiltzea da heriotzarik onena

hersturak baizik ez bada-karkit zukanako gutizia, den baino ere gogorragoa bilaka bekit bizia.”

Hersturak dira zailtasu-nak, istripuak, sufrimen-duak: horiek bakarrik ekar-tzen badiote Jainkoaganako deseo, egarria, den baino ere gogorragoa bihur bedi nire bizia. Bere otoitza ona da, mundua ikusten du traba bat bezala Jainkoarekin ha-rremana izateko; nik beste interpretazio bat emango nioke. “Lur hontaz laster as-per nadien” ez nuke jarriko, lur hau gehiago maitatzeko eman iezadazu grazia. Jain-koak maite du mundua, hau maitatzea da Jainkoaren nahia edo Erreinua. Hil zu-tenean esan zuen “egarriz nago”. Gehiago ez maitatua-ren penarekin joan zen.

Bere etxekoez, herriaz inter-esatuta hiltzea da herio-tzarik onena. Jesus horrela hiltzean bere kezak ziren ondoan zeuzkanak: bere ama, ikasleak, lapurrak, hil zutenak... Jainkoagan sinest-eak horretara eramaten gai-tu: ez besteetaz haztea, bes-tea gehiago maitatzea baizik. Nire kabuz egin det Xalba-dorren otoitzaren zuzenketa, salbatuz bere esperientzia oso-osorik, eta miretsiz oso-rik.

Istripu haren ondotik be-taurreko beltzekin ikusi nuen beti, hil zen egunean ere bai.

Bertso bitartez agurtu da Ugartemendia zinegotzia

Hiru bertso agurtzeko:

Udaletxean hasi nintzela hiru urte t’erdi inguru, haserako hilabeteetan ze komeri, ze apuru. Herritarrekin bat egin eta gertutasuna helburu, ilusioz eta lan taldean guztiok ikasiugu.

Bizitzan zehar tokatu izan zait oztopoak gainditzea, oraingoan berriz gertatu zait oparia jasotzea. Sabelean dantzan darabilkit laster dator erditzea, ta orain nire erabakia noakizu kontatzea.

Ostegun hontan aurkeztuko dut Udal arduraren ukoa, herritar bati pasako diot konfiantzaz lekukoa. Eskuz esku denok bateginik auzolanean gustora, kultur nortasunak izan dezan merezi duen hauspoa.

Arrazoi pertsonalak tarteko, **Aitziber Ugartemendia** Ando-aingo zinegotziak agur esan dio hiru urte luzez izan duen erantzukizunari. Eskerrak eman nahi dizkie ondoan izan dituen udal langileei, baita herriko norbanako, eragile eta elkarteei ere.

HITZ-GEZIDUNAK



	Gatz mea		Gorputz		Indarrez jarria	
	Joaki dira		Deitzeko moduko		Aluminioa	
	Teilatuko pieza					
	Ez ahal					
					Röntgen	
					Ozeano bat	
Karga-lan		Arrantza tresna	Zilarra		Ez eme	
Lasaitzeko moduko		Hondo handikoa	7. egun		Nori atzizkia	
* IRUDI-KO LOREA						
Mahai jokoa						
				Kontso-nantea	Bokala	Zangoaren atal
				Joan aditza-ren erroa	Zilegi	
Lotan		Zein unetarako				
Ipar Amerika-ko estatua		Argona				
				Atomo kargadun		
				Potasioa		
Bare			Eskoziarren leinu			


HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Belar landare. 2.- Sobera. Garoa, iratzea. 3.- Zuhaitz mota. Modua. 4.- Igaro. Kontsonante bikoitza. 5.- Ibar estu. Idarrez jar. 6.- Titanoaren ikur kimikoa. Emakume izena. 7.- Ukapen. Ergela, kaikua. 8.- leku hezeetako landare. Istua. 9.- Hobena.

GOITIK BEHERA: 1.- Arakatu. 2.- Modu larrian. 3.- Berdinik ez duena- Lo egiteko altzari. 4.- Jardun, ari izan. Iridioaren ikur kimikoa. 5.- Kontsonantea. Musika nola. Europar Batasunaren laburtzapena. Kontsonantea. 6.- Nori kasuaren atzizkia. Unatu, akitu. 7.- Nahastura trinko. Bi soka edo kateetatik zintzilik ipintzen den eserto-kia. 8.- Hegaztien erregea. 9.- Kolore mota.

MARRAZKI BITXIA



Lotu itzazu zenbakiak eta marrazki bitxi bat azalduko zaizu.

ERANTZUNAK

EZKER ESKUIN: 1. Berro. 2. Lar ita. 3. Makal. ERA. 4. Iragan. RT. 5. Arro. EZAR. 6. TI. Nekane. 7. Uko. Baboa. 8. Ihi. Tña. 9. Errua.

GOITIK BEHERA: 1. Mialtu. 2. Larriti. 3. Bakar Ohe. 4. Eragon. IT. 5.

N	A	L	K	E	R	A	N	
I	O	I	A	V	A	N	A	K
O	K	Z	I	O	N	O	L	
I		R	A	V	E	K	A	X
A	T	I	R	A	G	R	A	W
I	R	I	A	G	I	A	S	L
R	A		G	A	S		Z	
R		N	I	Z	E			
A	L	I	E	T				
Z	A	O	A	B				
E		S	G					



KIROL ALBISTEAK

Gipuzkoako zesta puntako txapelketako finalak Arraten

Larunbat arratsalde honetan Andoaingo Arrate pilotalekuan Gipuzkoako txapelketako finalak jokatu dira, 16:15ean hasita. Denera lau final jokatu dira, honako mailatan: kadeteak, jubenilak eta seniorrak. Senior mailako bi finaletan Andoaingo bi bikote arituko dira, 2. mailako finalean **Antton Arruti** eta **Iñaki Milton**. Lehen mailakoan, berriz, hirukote honen artean aterako da finala jokatuko duen bikotea: **Igor Lizasoain**, **Carlos Aizpurua** eta **Iñigo Garcia**. Andoaindar guztiei pilotalekura joateko dei egin die Gazteleku taldeak.

AZAROAK 29, LARUNBATA FINALAK ARRATEN. 16:15. Lehen partida, kadeteak: Danok bat 1-Zumaia.



Arratsaldeko 16:15ean hasiko dira finalak Arrate pilotalekuan.

Bigarren partida, jubenilak: Zumaia 1-Danok bat.
3. partida, senior 2.maila: Mutriku-Gazteleku.
4. partida, senior 1.maila: Gazteleku-Beotibar 1.

Antton Arruti, Iñaki Milton, Igor Lizasoain, Carlos Aizpurua eta Iñigo Garcia jokoan arituko dira

Dardoka elkartekoak onenekin

Azaroaren hasieran Dardoka elkarteko **Rafa Mellado** munduko txapelketan aritu da AEBko Las Vegasen. Pablo de la Fuente taldekidearekin batera 64. postuan amaitu zuten, 128 partaideetatik. Rafaren hitzetan, "nire lehen mundiala esperientzia bikaina izan da, jada datorren denboraldira begira gaude berriz ere txartela eskuratu ahal izateko".

Bestalde azaroaren 16tik 19ra Santiago de Compostelan espainiako txapelketa jokoan izan da. Bertan Dardoka elkarteko lau kide izan dira: **Rafa Mellado**, **Pedro Urtizberea**, **Ivan**



Martinez eta **Joseba Unanue**. Bikoteka aipagarria da Pedrok ta Ivanek lortutako bederatzigarren postua, eta Joseba Unanuek bakarkakoan lortutako

zilarrezko domina. Taldeka 34. postuan sailkatu ziren.

Urnietako elkarteak herritarrek ateak zabalik ditu kide berrientzat.

Erremontean final aurrekora

Urnietako 40-36 Ilunpe

Imanol Ansa-Xabier Ozaeta. Senior maila, erremontea. Zuzenean final aurrekoetara sailkatu dira.

Urnietako 40-16 Gazteleku

Ander Goikoetxea-Ibai Martiarena. Senior maila, erremontea. Final aurrekoetan daude, baina asteburuan garaipena lortzen badute zuzenean finalera sailkatu daitezke.

Beste emaitza batzuk

Amezketako 5-22 Urnietako

Jon Alberdi-Imanol Odriozola Kadeteak, 1. maila. Gipuzkoako finala jokatzeke sailkatu dira. Zizurkilgo txapelketan ere final aurrekora sailkatu dira.

Urnietako 22-20 Eskoriatza

Julen Loitegi-Oier Gurutzealde Seniorrak, eskuz binaka. Ozta-ozta baina garaipena etxean geratu zen.



Ander Goikoetxea-Ibai Martiarena.

Kadete mailako finalak Urnietan, larunbatean

GIPUZKOAKO TXAPELKETA KADETE MAILAKO FINALAK
Azaroak 29, larunbata. 17:30. Urnietako.

Eskuz banaka:
Bergara-Gazteleku.
Eskuz binaka, 1. maila:
Urnietako-Usturibil.

UKEko pilota sailak herriki-deei eta zaletuei herrikideak animatzeko dei berezia egin nahi die: "Urtero ez da lehen mailako finala eskuratzen, eta gainera usurbildarrak faborito dira. Zaletuek eman diezaio-tela falta zaien gutxi hori".

Areto futbol txapelketa

8. jardunaldia.

Azaroak 23, igandea:
Ondarreta 2-13 OZU
Aure Maiton 2-3 Keler
Pausoka 2-13 Leiza 77
Academia 9-3 Hogar
Txalaka 2-2 Galpasitx
Centro Extremeño 3-5 Ekhi

Hogar Extremeño-Txalaka
Igandea, 30. 09:00. Arrate.
Keler-Academia GF
Igandea, 30. 10:00. Arrate.
Leiza 77-Aure Maiton
Igandea, 30. 11:00. Arrate.
OZU-Pausoka
Igandea, 30. 12:00. Arrate.

9. jardunaldia.

Azaroak 23, igandea:
Ekhi-Ekaiatz
Lar, 29. 14:30. Allurralde.
Galpasitx-Centro Extremeño
Igandea, 30. 09:15. Allurralde.

Sailkapena

9. jardunaldia:

1. Keler	21
2. Centro Extremeño	18
3. Ekhi	18
4. Aure Maiton	16

Igeriketa gazteenentzat



Buruntzaldea IKT igerilari taldeko kide txikienak primeran aritu ziren denboraldirako lehen jardunaldian. Guztiak ere txukun aritu ziren proba ezberdinetan. Lehen jardunaldia azaroaren

15ean burutu zen. Lasarten eta Andoainen entrenatzen duten haurrek elkarrekin egoteko eta elkarrekin lehia-tzeko lehen aukera izan zuten, alde horretatik txapelketa berezia izan zen.

Preferente mailako futbola

10. jardunaldia:

Orioko 3-1 Euskalduna
Urnietako 1-1 Deusto

Asteburuko partidak:

Euskalduna-Trintxerpe
Munibe-Urnietako

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

TAKE 35-43 Ganbara Sen.
Mundarro 46-63 Ganbara Kad.
Ganbara Inf. 19-39 BKL

Asteburuan Andoainen:

Ganbara Sen.-Ostadar
Larunbata, 29. 19:15.
Allurralde.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Izarne
Olano, Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com.
www.aiurri.com.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea,

banaketa
arduraduna:
Garbiñe
Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi
(Andoain), Garazi
Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 27TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

- Andoain, Bastero**
- **“Relatos Salvajes”**
19:30, 22:00.
Azaroak 29, larunbata.
19:30.
Azaroak 30, igandea.
19:30, 22:00.
Abenduak 1, astelehena.
 - **“Haurrak eta lapurrak”**
Azaroak 29 eta 30. 17:00.
 - **Datorren asteburuan:**
Helduentzat:
“French women”
Abenduak 6, 7 eta 8.
Haurrentzat:
“Dixie y la rebelion zombie”
Abenduak 6 eta 7.
 - **Opera proiektzioa:**
“Tosca”, Giacomo Puccini-rena Londreseko Royal Opera Housetik.
Abenduak 5, ost. 20:15.

- Urnietan, Sarobe**
- **“Hysteria”**
22:00.
Azaroak 28, ostirala.

Bilkura

- Andoain**
- Andoaingo ikastolako bi guraso presoen -Ttinto Otaño eta Iñaki Igerategi- aldeko bilkura isila.
17:00. Bastero plaza.
Azaroak 28, ostirala.

Bilera

- Andoain**
- “Gazteok hartu hitza!” parte hartze prozesua amaituta, gazteentzako festa antolatuko nahi dute.
19:00. Bastero.
Abenduak 5, ostirala.

Lehiaketa

- Andoain**
- **Andoaindarrak izar** talentu lehiaketa martxan jarriko du Gazte Lokalak.
Finala:
18:00. Bastero.
Azaroak 28, ostirala.

Gune ibiltaria

- Andoain**
- Emakunderen Berdintasunerako gune ibiltaria: Andoainen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II Planaren aurkezpen bideoa ikus ahal izango da, eta beste bideo batzuk ere, Andoaingo emakumeen parte-hartzea azaltzen dituenak.
Zumea plaza:
10:00-14:00 / 16:00-20:00
Azaroak 28, ostirala.

Matrikula

- Andoain**
- 2015eko urtarrilean 0-1 eta 1-2 urteko haurrak Galar-din matrikulatzeko epea laster zabalduko dute: Abenduaren 5a bitarte. Izen-ematea: Bastero.

Erakusketa

- Andoain, Bastero**
- Ainhua Akutain Ziarrusta artistaren lanak ikusgai.
Abenduaren 20ra bitarte.

Musika

- Andoain, Bastero**
- Gabonetako kontzertua, “Olentzeroren oporrak”
Udal Musika Eskolako ikasleek eskutik.
18:00. Doan.
Abenduak 18, osteguna.

Tailerra

- Urnietan**
- Merkatarien erronkei aurre egiteko tailerra antolatuko du On Bizik.
Errekalde kalea.
14:30-16:00.
Abenduak 1, 11 eta 18.

Azoka

- Durango**
- Disko eta liburu azoka baino askoz gehiago.
Abenduak 5-8

Gaztetxea

- Andoain**
- **Gaztetxearen urteurrena:**
Azaroak 27, osteguna
20:00 Bakarrizketa: Oroi-tza-penak Joseba Usabiagaren eskutik.
Azaroak 28, ostirala
22:30 Kashbad eta Libe.
Azaroak 29, larunbata
22:30 Niña Coyote eta Chico Tornado.
Azaroak 30, igandea
19:00 Anari bandarekin eta Morau & Beñardo.

Zikloa

- Andoain**
- Euskararen astea, Udalaren eskutik: Lehiaketa, kalejira, ikusentzunezkoak...
Egitarau osoa Aiurri hone-tan, 7. orrialdean.
Azaroak 28-abenduak 4.

Antzerkia

- Urnietan, Sarobe**
- **Munduari itzulia.** Zuzendeko musika, txotxongiloak eta beste zenbait jardura.
12:00. 3 euro.
Azaroak 30, igandea.
 - **La mujer sola** bakarrizketa, komikotasunean eta ironian oinarrituta.
20:00. 3 euro.
Azaroak 30, igandea.

- Andoain, Bastero**
- “Al final de la carretera”, antzezlanaz gazte-leraz Txalo konpainiaren eskutik.
21:30. Auditorioa.
Abenduak 12, ostirala.

Odol-emaileak

- Urnietan**
- Anbulatorio zaharrean.
18:30-20:30.
Azaroak 28, ostirala.

- Andoain**
- Anbulatorioan.
18:30-20:30.
Abenduak 9, asteartea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Naroa hama-zazpi urte bete dituzu. Egun ona pasa zure aita, ama eta anaia- ren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Azaroaren 22an **Anek** 10 urte bete zituen. Zorionak gurasoak, Eneko eta familiaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Juan Manuel eta **Maixabelek**, hilaren 28an duela 50 urte ezkondu zirela eta, urrezko ezteiak ospatuko dituzte San Martin de Tourseko elizan igandeko 12:30tako mezetan. Zorionak bihotz-bihotzez etxekoan partetik. Eskerrik asko eman diguzuen guztiagatik.

ANDOAIN

‘Lasa eta Zabala’ filmeko kideak Andoainen



Ainhua Aiertza, Pablo Malo, Jon Anza eta Christian Merchan.

Pablo Malo zuzendaria eta Jon Anza eta Christian Merchan aktoreak (filmean Lasa eta Zabala gazteen papera betetzen dutenak) Andoaingo Zine eta Bideo eskolara hurbildu ziren asteartean. Ainhua Aiertza bertako irakasleak gidatu zuen mahai-ingurua, eta ikasleek galderei erantzun behar izan zieten ordu eta erdiz

luzatu zen solasaldi interesgarrian. Malo zuzendariari zuzendu zizkioten galderak gehienbat, bai filmaren oihartzunaren ingurukoak zein alderdi teknikoarekin lotutakoak.

Gaur gaurkoz, Lasa eta Zabala Euskal Herriko zinema aretoetan inoizko euskal filmarik ikusiena da jada.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA